

**SORALUZeko ARKITEKTURA ERLIJIOSOA:
PARROKIA-ELIZAREN AZTERKETA ARTISTIKOA**

Ramón Leturiondo Altube

AURKIBIDEA

1. Testuinguru historikoa
2. Lehen elizaren zantzuak
3. Gaur egungo elizaren hasiera: burualdea
4. Nabe nagusia
5. Eranskin barrokoak
 - 5.1. Alboko kaperak
 - 5.2. Eliz-ataria
 - 5.3. Kanpandorra
 - 5.4. Korua
6. Erretaula nagusia
7. Soralezeko eliza gaur egun

SORALUZEEKO PARROKIA-ELIZAREN AZTERKETA ARKITEKTONIKOA

Egungo Soraluzeke Andre Maria Jasokundearen parrokia-eliza Soraluze hiribilduan - lehenago Placencia de Soraluze bezala ezagutua- kokatzen da XVI. mendeaz geroztik. Eliza horrek gutxi bezala adierazten dizkigu denboran zehar gertatu diren bilakaera arkitektonikoa eta ibilbide historikoa hiribildu barruan dauden eraikinen artean. Horrela esan genezake egungo eraikin hau zenbait garaitako hainbat atalez osatuta dagoela, eta atal horien ezaugarriak bat datozela garai historiko jakin horietako ezaugarriekin: alde batetik, elizaren burualdea, gotiko berantiarren itxuran taxututa; bestetik, XVI. mendeko euskal gotikoaren trazei jarraituz, eraikitako nabe nagusia eta azkenik XVII. mendeko eta XVIII. hasierako eranskin barrokoak (alboko kaperak, eliz ataria, kanpai dorrea eta koruari eusten dion arkuteria). Halaber, aipatu beharra dago baita ere Ventura Rodríguezek diseinatutako erretaula neoklasikoa. Honela, gaurko elizak elementu gotikoak, errenazentistak, barrokoak eta neoklasikoak biltzen ditu, Moderno Aroko bilakaera artistikoaren ispilu paregabea izanik.

1.-Testuinguru historikoa

Gotikoak XII. mendearen hondarrean erromanikoa ordezkatu zuen, Europa guztira zabalduz kultur mugimendu gisa. Hurrengo hiru mendeetan zehar, mugimendu hori bilakatzen joan zen estilo errenazentistak ordezkatu zuen arte XVI. mendean. Horrela, XIII. mendean garapen ekonomiko nabarmen bat gertatu zen, gremioetan oinarritutako artisautzari eta merkataritzaren berpizkundeari esker. Ondorioz, sendotze ekonomiko horrek biztanleriaren hazkunde handia ez ezik, hiriak indartzea eta hiribilduak sortzea ere ekarri zuen -ikusirik ez dago Euskal Herrian XIII. eta XIV. mendeetan zehar zenbat eta zenbat hiribildu sortu ziren-. Testuinguru horretan, hiria eta burgesia, hots, garai horretan indartu zen klase sozial berria, oinarri sendoa bilakatu ziren arte gotikoaren garapenerako. XIV. mendeak berriz, krisi eta atzeraldi garai bat ekarri zuen. Horren lekuko dira urte haietan Europak bizi izan zituen etengabeko hondamendiak, goseteak, izurriteak eta gerrateak. Europa ez zen krisialditik irtengo XV. mendearen azken aldera arte, hain zuzen berriz ere aurrerapen ekonomiko eta aldaketa politiko eztabaiaezinak gertatu ziren arte. Hala, Erdi Aroa bukatzeaz zegoela, hainbat aldaketak sustatuko dute garapen hori: merkataritzaren goraldia – bereziki deskubritutako lurralde berriekin merkataritza-erlazioak direla eta-, hazkunde demografikoa, hirien susperraldia eta estatu modernoaren sorrera.

Euskal Herriak ere, Europa osoak bezala, garapen ekonomiko handia ezagutu zuen. Garai horretan, aldaketa garrantzitsuak izan zituen, nahiz eta modu desorekatuan gertatu. Hala, Nafarroako erresuma gainbehera politiko-prozesu batean sartu zen, eta, azkenean, Gaztelako tropek konkistatu zuten 1512. urtean. Araban ere, atzerakada ekonomiko handia gertatu zen eta lurraldea gelditzen joan zen poliki-poliki. Bizkaia eta Gipuzkoa, aldiz, beren aurrerakada ekonomiko ikusgarriagatik nabarmendu ziren. Itsasertzeko bi lurraldeek gora egin zuten, burdina-mearen ustiatetari, arrantzari, Amerikarekin hartu-emanen eta Gaztelako produktuekin Ipar Europarekin egindako merkataritzari esker. XIV. mendetik aurrerako garapen ekonomikoak biztanleria haztea ekarri zuen, eta, horren guztiaren ondorioz, hazi egin ziren, halaber, gizarte eta kultur oparotasuna.

Gipuzkoari dagokionez, artegintzarako XVI. mendea garapen handiko garaia izan zen. Gogora dezagun horrenbeste eraikin berri eraikitzea Gipuzkoan –bai arkitektura erlijiosoa nahiz zibila- erabat lotuta dagoela lurralde horretako ekonomia- eta gizarte-baldintza jakin batzuekin. Dударik gabe, Ahaide Nagusien arteko gerrateen ondorengo egonkortasun sozialak, aurrerapen ekonomikoek, deskubritu berria zen Amerikarekin merkataritza-harremanak eragindako irabaziek eta hazkunde demografikoak bide eman zuten Gipuzkoan lan arkitektoniko askori ekiteko. Hori guztia kontuan izanda, ezin da aipatu gabe utzi

Gaztelaren orbitan sortu zen funtzionario eta merkatari talde batek izan zuen garrantzia Gipuzkoako arkitekturaren forma berriak sar zitezen; talde horrek, Europako eta Ameriketako agintaritzak berriarekin aberastu ondoren, molde arkitektoniko berriak ekarri zituen eraikuntzara. Itsasoa eta Gaztela izan ziren molde berri horien sarbideak. Izan ere, Kantabriar itsasoko zenbait portutako merkataritzak-harremanak zirela medio, Herbeheretatik nahiz Italiatik hainbat objektu ekarri zituzten, hala nola mihiseak, tapizak, bitxiak, etab. Bestalde, penintsula osoan zehar lan egiten zuten euskal harginen eskutik, Gaztelako Errenazimentuaren eragina errazago sartu zen Gipuzkoan.

Aletzen ari garen testuinguru historiko honekin bukatu baino lehenago, ezin izango dugu aipatu gabe utzi Soraluzerentzat Errege Etxearen sorrerak ekarri zituen ondorio ekonomiko-sozialak. Jakina da hiribildu honetan, beste hainbat bailaratan bezalaxe, azken Erdi Aroan zehar burdinolak asko garatu zirela, bere jarduera nagusia armagintza izan zelarik. Garapen horren ondorioz eta armen produktioa hobeto kontrolatzeko asmoz, Espainiako errege Filipe II.ak 1573. urtean Errege Etxe hori Soraluze fundatzea erabaki zuen, eta hori izango da hain justu gaur egungo Errabal kalean kokatu zutena. Kontuan hartu behar da Koroa zela bezerorik nagusia eta armagintza oso jarduera garrantzitsua bihurtu zela tertzioei armez hornitzeko. Zentzu honetan, ezin da ahaztu XVI. mendeko Espainiar Koroak jorratu zuen gerrez beteriko nazioarteko politika Europan, nahiz Ameriketara egindako lurralde konkista. Hartara, eta horren guztiaren ondorio gisa, Soraluze eskualdeko erdigune bihurtu zen eta beraz, gertaldi horrek bide emango dio hiribildu honi sustapen ekonomikorako eta eliza bezalako eraikin berrien eraikuntzari ekiteko.

2.-Lehen elizaren zantzuak

Badirudi lehen gune horretan, gure garaietaraino heldu den Andre Maria Jasokundearen parroikia-eliza dagoen leku berean izan zela beste eraikin erlijiosoren bat. XVII. mendeko Donostiako artxibozain eta probintziako kronista zen Domingo de Lizasok dioenez Soraluze baten eliza bat 1207rako; lehen berriak beraz, XIII. mendean hasierakoak dira. Horrek nabarmen uzten du aglomerazio txikiren bat egongo zela bertan, Soraluze hiribildu bezala sortu baino lehenago 1343. urtean. Gogora ekar daiteke zentzu honetan Alfontso XI.ak emandako hiri-gutunean Herlaegi –Garibay historialariak Herlaibia deitzen dio- eta Soraluze asentamenduak aipatzen direla. Lehen eliza horri buruzko aipuak 1267 eta 1293an errepikatzen dira berriz, Gaztelako erregeek Soraluzeko elizaren gaineko patronatutza Elgoibarko Olasotar ahaide nagusiei konfirmatu zieten eta. Hona hemen Luis Murugarren historialariak honi buruz jasotzen duen informazioa: «*Doña María González de Olaso, casada con Fernán Yañez de Gamboa, a quien el rey D. Sancho IV concedió los patronatos de Olaso, Eibar, Soraluze, y Régil, por real carta de 3 de abril de 1293, hijo de Lope Fernández de Gamboa, vecino que fue de Zumaya, y nieto de Juan López de Gamboa, que en 1267 había también obtenido del rey Alfonso el Sabio los mencionados patronatos*».

XIV. mendean azkenaldera badirudi harrizko eliza berri batek egurrezko lehen eliza zaharra ordezkatu zuela, akaso Alfontso XI. Erregek agindutakoa betetzeko, alegia hiribildua harresitzeko eta dorreak jartzeko. XV. mende bukaeran eliza bazela baieztatzen duen beste erreferentzi bat aurkitzen dugu Javier Elorzak jaso duen beste dokumentu honetan: “*Delante de la yglesia de Santa María de la vyla de / (Plazencia) a cinco días del mes de febrero anno / de nuestro salvador Ihesu Christo de mill e / quatroçientos e ochenta e un annos....*” (Archivos Municipales de Eibar (1409-1520) y de Soraluze/Placencia de las Armas (1481-1520).

Ez da lehen eliza horren arrastorik gelditzen, baina XIII. mendekoa zela kontuan hartuta, pentsa daiteke gotiko klasikoaren trazei jarraituz izango zela egina. Tamainaz derrigorrez txikia izango zen, arestian esan bezala, Placencia de Soraluze hiribildu moduan 1343. urtean fundatu zelako, eta lehenago bakarrik aglomerazio txikiak zeudelako ingurune horretan.

Lehen eliza eta gaur ezagutzen duguna, hasieratik harresien osagaia izan zela dirudi, mendialderantz ematen zuen ekialdeko hormatalaren parte izanik. M^a Asunción Arrazola Echeverría adituak bere “Renacimiento en Guipúzcoa” ikerlanean dioenez, eliza herri lurretan eraikia izan zen, Oñatiko artxiboan aurkitutako 1544. urteko dokumentu batek horrela erakusten baitu: “...*fue construida y hedificada por nos e por nuestros progenitores y antepasados en tierra y sitio concejil...*” (A.P.O.V 3640. paper-sorta).

3.- Gaur egungo elizaren hasiera: burualdea

Elizaren burualdea eta nabe nagusia, biak, XVI. mendean eginak izan baldin baziren ere, bi une ezberdin antzeman daitezke bere eraikuntzan: lehendabizi burualdea egiteari ekin zioten 1532. urte inguruan eta horren berehalako segidan nabe nagusia 1544. urteaz geroztik izan zen eraikia. Horrek ikusiko dugun bezala, hainbat ezberdintasun formal emango dio iruzkingai dugun eraikin honi.

Martin de Igarza hargin-maisua hasi zen elizaren burualdea egiten XVI. mendearen lehen herenaren bukaera aldera. Horrela irakur daiteke Vargas Ponce (1760-1821) eruditu ilustratuak bere “Correspondencia epistolar entre don José de Vargas y Ponce y don Juan Agustín Ceán Bermúdez” idatzitako eskutitzen artean: “1532, Martín de Igarza dio la traza de la capilla mayor. Maese Martín de Igarza, hijo de Martín García de Igarza...”.

Jakina da eliza bat beti bere burualdetik –ekialdetik eskuharki- hasten zela eraikitzen, eta beraz alderik zaharrena berau izaten zela. Hau da hain zuzen ere Soraluzeko elizaren burualdean gertatzen dena, XV. mendeko gotiko gardunaren trazaren arabera eginda baitago. Hona hemen burualde honetan antzeman daitezkeen ezaugarri formal nagusiak:

- Bost aldeko abside poligonal: Elizaren barnealdetik ezin da antzeman absidea, Ventura Rodríguez-ek XVIII. mendean diseinatutako erretaula neoklasikoak ezkutatzen duelako. Kanpotik ikusita, alde bakoitza kontrahorma sendo batez mugatuta dago.
- Hormak taxuz landuriko ofitazko harlanduz eginak daude, kanpotik sei kontrahorma lodiz eta sendoz indartuak. Antza denez, ez zuten premiarik ikusi zutoin-arku edo arbotanterik jartzeko, ez dagoelako garaiera diferenteko nabarik. Ondorioz, trinkotasuna izango da nagusi hutsuneen gainetik, harrizko hormek eutsi behar baitiote burualde hau estaltzen duen harrizko gurutze-ganga astunari.
- Kanpotik ikus daitezkeen bi leiho estilo gotikoaren arabera taxututa daude, estilo horri dagozkion arku zorrotzek edo ojiba arkuek markoztatzen baitituzte. Hormak horren lodiak direnez, leihoak turuta itxurakoak edo txaranbelduak dira, alegia irekigunea zabalagoa eta garaiagoa da kanpoaldean –arkuaren extradosean- barnealdean baino –arkuaren intradosean-, estutu egiten direlarik barneratu ahala. Aldiz, arkuen hutsartea betetzen duen trazeriei erreparatu ezker, berehala ohartuko gara bi arku bikiak –mainel batez bereiztuak- erdi puntuko arku banaz errematatzen direla eta okulu bat gainean dutela. Arku zorrotzen eta aldi berean erdi puntuko erabilerak agerian uzten du eraikinaren jatorri gotikoaren gainean hasiak direla heltzen eragin errenazentistak.
- Estalkia drainatzeko, kanoi forma duen gargola edo xurrutarri bakar bat ikus daiteke, gotikoan ohikoa zen osagai bat urak bideratzeko.

- Irozkaia edo euskarriak aztertuz gero, nabarmen ikusten da burualdeko pilareek gotikoak izaten jarraitzen dutela, bereziki harronei nahiz kapitelen so egin ezker. Agerian gelditzen diren sekzio zilindrikoko zutabeek fuste bakarra eta mehea dute eta hormari itsatsita daude, erretaularen alde banatan. Ohar gaitzen ondo xehetasun honetan, elizaren nabe nagusiaren pilareak desberdinak baitira eta horrek jakinaraziko digulako aldaketa formal eta estilistiko bat egon zela.
- Elizaren burualde hau gotiko gardun edo joriaren arabeko gurutze-gangaz estaltzen da. Estaltze-sistema horretan, erdian gurutzatzen diren bi nerbio nagusiak funtsezkoenak dira, beraien bidez estalduraren pisu osoa ertzetako lau puntu jakinen gainera doalako. Baina kontuan hartu behar da XV. mendeko gurutze-ganga gardunak beste hainbat eta hainbat bigarren mailako nerbio duela, joritasun dekoratiboa izanik ezaugarri nagusizat. Horrela, gotiko gardunaren tankerako trazei jarraituz, Sorluzeko burualdeko estaldurak ezaugarri hauek ditu: tertzele-ganga bikoitzak (gurutze-gangaren sail bakoitza beste hiru sailetan banatzen denean hitz egiten da XIV. mendeaz geroztik zabaldu zen ganga mota honetaz), eta loreak ematen dituzten irudiak: obalo bat zentroan eta nerbio kurbatuak –konbado izenekoak- petaloak bailiran. Nerbioak elkartzen diren tokietan giltzarri anitz daude. Nabe nagusiko beste gainerako gurutze-gangek eskema honi jarraituko diote, behin eta berriro forma berdinak errepikatuz. Horrek, zalantzarik gabe, elizari batasun-zentzua ematen dio.


4.-Nabe nagusia

Burualdearen berehalako segidan, Pascual de Iturriza hargin-maisu mutrikuarrak nabe nagusia egiteari ekin zion 1540. hamarkada aldera. Zentzu honetan, ugariak dira Arrazola ikertzaileak Oñatiko artxibategian jasotako aipamenak elizaren eraikuntza-prozesuari buruzkoak (harrien eramateari buruzkoak, obrekin jarraitzeko diru-faltari buruzkoak...). Hona hemen 1541. urteko adibide bat: *“Domingo Martínez de Iribe y Pedro de Aerbaegui, canteros...nos obligamos...por de dar e entregar a la dicha iglesia de Nuestra Señora de Sancta Maria de la dicha villa y a los mayordomos de ella, para la dicha iglesia, doscientos e sesenta y ocho de piedra...a saber, esquinas o sillares, entregadas en la cantera...para el dia y fiesta del apostol Sant Andres...”*(A.P.O.V. Leg. 3.636, 76) edo 1542ko beste hau: *“...la dicha iglesia tenia mucha necesidad de dineros y falta de ellos y que ellos como parrochianos y feligreses de la dicha iglesia, cada uno de ellos segun su voluntad, querian emprestar de sus bienes temporales a la dicha iglesia...”*(A.P.O.V. Leg. 3.637, 50).

Burualdearen jarraian nabe nagusiak beste hiru tarte ditu, euskal gotikoari dagozkion ezaugarrien arabera taxutuak. Izan ere, Trentoko Kontzilioaren bitartez Eliza katolikoak bultzatutako ikuspuntu aldaketak, arkitektura estilo soilagoa, irmoagoa eta monumentalagoa ekarri zuela nabarmendu behar da. Ikuspuntu aldaketa horri esker, Euskal Herrian elizen eredu gotiko propioa sortu zen elementu errenazentistekin nahastuta, euskal gotiko izenez ezagutzen dena, hain zuzen ere. Horrela, aretoko oinplanodun elizak sortu ziren (“hallenkirche”) berezitasun arkitektoniko hauekin: altuera handiko hiru nabedunak edo nabe bakardunak, gurutze-ganga joriak, kanpoaldean kontrahorma sendoak eta arbotante-eza, eta eredu errenazentistari dagozkion kapiteldun zutabeak. Hona hemen gehien nabarmentzen diren ezaugarriak Sorluzeko nabe nagusian:

- Oinplanoari begiratu ezker, lehenengo begi-kolpean jasotzen da, elizan sartu orduko, zabalera handiko nabe bakarreko eraikina dela eta nabeak hiru tarte dituela presbiterioko tarteaz gain. Garbi dago beraz, hargin-maisuak

espazioaren batasun osoa bilatu zuela eta ez gotiko klasikoan bezala espazio sailkatua eta banatua (gogoratu Burgoseko katedrala esate baterako). Eraikin honek euskal gotikoak horren berea zuen areto-oinplanoa (“hallenkirche”) du. Horrek esan nahi du Euskal Herrian XVI. mendea ezkerera eraiki ziren hainbat elizetako espazioaren kontzeptuari darraiola irmo Soraluzeke Andre Maria Jasokundearen elizak.



-Irozkaia edo euskarriak osagai arkitektoniko garrantzitsuenak dira iruzkin-gai dugun eliza hau euskal gotiko estilo honetan uztartzeko. Izan ere, euskarri-sorta bakoitza hiru zutabetxo osatuta dago. Fuste meheko zutabe horiek –barne aldetik ikusten ez diren kontrahorma handi batzuei itsatsiak- harroin eta kapitela klasikoak dauzkate. Arretaz begiratu ezkerera, laster konturatuko gara harroinetan bi bozel eta eskozia bat dutela, eta kapituletan, berriz, ekinoa eta abakoa. Ezbairik gabe zutabe erromatar toskanarrak dira. Hona hemen behar genuen froga baieztatzeko euskal gotikoan bi tradizio ezberdin nahastaten zirela: gotiko tradizionala eta hedatzen ari zen Errenazimendua, mundu klasikoa miresten zuena.

- Gangak, berriz, gotiko gardunaren arabeko gurutze-gangak dira. Bigarren tarteko gurutze-ganga egiteko, hargin-maisuak burualdean dagoena hartu zuen eredu: tertzelete-ganga bikoitzak eta loreak ematen dituzten irudiak (obalo bat zentroan eta nerbio kurbatuak –konbado izenekoak- petaloak bailiran). Hirugarren eta laugarren tartekoak, aitzitik, lore formak imitatu arren, ez daukate obalorik erdigunean. Arestian esan bezala, antzekotasun handia duten gurutze-ganga jori horiek elizari batasun-zentzua ematen diote.

-Trinkotasuna da nagusi hutsuneen gainetik, harrizko hormek betetzen baitute kontrahormen arteko tarte guztia, gotiko klasikoak horren bereak zituen beirate handiei lekuri utzi gabe. Horren guztiaren ondorioz, barrunbeak argitasun gutxiak dira.

5.-Eranskin barrokoak

Barrokoa Errenazimenduaren ondoren etorri zen mugimendu kulturala da. XVII. mendearen hasieratik XVIII. mendearen erdialdera arte Europan eta bere eraginpeko herrialdeetan eman zen aro kulturala da, hain zuzen ere. Krisi-garaiari lotutako artea izan zen, Erreformaren eta Kontrarreformaren arteko gatazkari modu berezi batez lotuta egonik. Eliza katoliko kontrarreformistak fededunak sentsibilizatu nahi izan zituen, emozioak eta grinak adieraziz, herri xeheari elizaren dotrina ofiziala transmititzeko (fededunak urrundu ez zitezen Eliza Katoliko ofizialetik, aurreko mendean Erreformen gertatu zen bezalaxe). Horrela, herrialde katolikoetan Kontrarreformako Elizak ekimena berreskuratu zuen eta bere erlijio-ordenen bitartez -jesuitak, kaputxinoak, karmeldarrak, agustindarrak-, komunikazio zuzena bilatu zuen, estilo artistiko dinamikoago eta adierazkorrago batez baliatuz. Ondorioz, Barrokoa eredu errenazentista nagusia zen orekatik eta harmoniaren bilaketatik oso urruti egongo da.

Euskal Herrian ere XVII. mendean krisia nagusitu zen. Aurreko sasoian aurrerapen ekonomikoaren sostengu izan ziren oinarriak krisian erori eta gainbeheran etorri ziren -bai sektore ekonomikoak, nahiz egonkortasun sozial eta politikoa-. Horren guztiaren isla gisa, garai errenazentistan baino eraikin gutxiago egin ziren. Hala ere kontuan hartu behar da hainbat komentu finkatu zirela, Sorluzen Santa Ana kaleko moja agustindarrena esate baterako. Edonola, eraikin berriak egiten hasi baino lehen, Barroko garaia lanik nabarmenenak alde aurretik eraikita zeuden elizetan egin ziren eranskinak dira, hala nola aturreak, eliz atariak, sakristiak edo batik bat kanpandorreak. Estiloaren aldetik, esan beharra dago Gipuzkoako Barrokoak ez duela joritasun handirik eta Barrokoari egozten zaion ornamentazio oparotasunetik urruti egon zela. Modu horretan, estilo herrertarraren eraginez, estilo klasizista nagusitu zen, eraikuntzaren ornamentazio-urritasuna, geometria zentzua eta soiltasuna izanik gehien nabarmendu ziren ezaugarriak.

Lau dira Sorluzeko Andre Maria Jasokundearen elizan aipagarriak diren eranskin barrokoak: alboko kaperak, eliz ataria, kanpai dorrea eta koruari eusten dion arkuteria. Ekin diezaiogun bakoitza aztertzeari:

5.1.-Alboko kaperak

Markina-Etxebarriko Juan de Ansola Ybaiguren hargin-maisuak alboko kaperak eraiki zituen 1632. urtean. Eranskin horretan Trentoko kontziliotik sorturiko Kontrarreformaren ikuspuntu berriaren eragina antzematen da. Izan ere, Vignolak Erromako II Gesù-n trazaturiko eliza jesuitikoen ildo nagusiei jarraituz, Sorluzeko elizaren nabe nagusiari bi kaperasail eransten zaizkio albo banatan, kontrahormen artean hain zuzen ere.

Modu horretara, elizaren funtzioak erabat zehaztuta gelditzen dira: alde batetik, nabe nagusiaren betebeharrak nagusiak aldarearekin eta pulpituarekin lotzen dira; hartara, espazio propioa eta guztiz aproposa bihurtzen da mezari edota apaizaren sermoiei jarraitzeko, beste inongo oztoporik edo trabarik gabe, sinestunen atenzioa apaizarengan kontzentratuz. Bestetik, kontrahormen arteko alboko kaperetan konfesatokiak jartzen dira, eliztarren aitortza bideratzeko. Hori lortzearen, alboko kaperak itzalpetuak daude eta beraien artean komunikatuak, eliztarren joan-etorriek ez dezaten moztu edota oztopatu erdiko nabean gertatzen ari den eginkizunik nagusiena. Nabe zentralaren albo banatan hiruna kaperak zabaltzen ziren, elizaren burualdea exentua gelditu zelarik. Kaperak ezagunenak, gaur egun, Nazarenoarena eta Santa Barbararena dira, azken hau Artilleriaren patroia omenez egina.

Badirudi Ansola hargin-maisuak ez zuela arazo arkitektoniko handirik izan kaperak berri horiek nabe nagusiarekin komunikatzeko, arazo ekonomikoak zirela eta, hormak artean ez zeudelako eginda. Ramiro Larrañaga ikertzaileak erreferentzi interesgarriak jasotzen ditu elizaren egoerari buruz XVII. mendearen hasieran. Lehendabizi garai hartako korrejidoreak dioena: “*...Para alzar las paredes y bóvedas y tejado serán menester más de doce mil ducados... y que por lo menos para estar con alguna decencia, conviene levantarse las paredes de toda la dicha iglesia y hacer el tejado a su medida... En Azcoitia a doce de junio de mil y seiscientos y seis años. El Licenciado Juan del Espinar*”; ondoren, Kalagurriseko gotzainak idazten duena: “*Que para acabar de cerrar la dicha iglesia de pared que está abierta desde la capilla mayor abajo, aunque los cimientos están levantados hasta la mitad en el coro, son menester diez mil ducados...Huelgas, veinte de*

julio de mil y seiscientos y seis. El Obispo de Calahorra». (Ramiro Larrañaga: “El atrio de la iglesia de Placencia de las Armas, Soraluze” Ondare-5, Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales, 189-223. orr. Eusko Ikaskuntza.). Informazio horren arabera, ematen du elizaren nabe nagusiaren oinarriak eginda zeudela Pascual de Iturrizaren oinplanoen arabera, baina artean hormak ez zeudela eraikita. Horregatik pentsa daiteke nabe nagusitik alboko kaperetara pasatzeko dauden erdi puntuko arkuak izatez kontrahormetara doazen deskarga-arkuak direla, hormaren pisu guztia bertara bideratzearen eraikiak.


5.2.-Eliz-ataria (“Elizataixa”)

Soraluzek gordetzen du, ezbairik gabe, Gipuzkoan XVI eta XVII. mendeetan egin zen egurrezko arkitekturaren adibiderik hoberenatarikoa, hoberena ez bada. Urteetan zehar suteek eragindako triskantzek desagerrarazi bazuten egurrez egindako hainbat lan, ezin da ukatu Euskal Herri atlantikoan egurrezko arkitektura –ars lignae bezala ezagutua- tradizio handikoa izan zela, eskualde honetan dagoen egur kantitatea eta kalitatea kontuan izanda.

XVI. eta XVII. mendeetan lanean aritu ziren hainbat maisu arotz - ezezagunak gehienak- dira lan horiek egin zituztenak. Mende horietan Euskal Herrian egindako egurrezko eraikuntzak ez dira bat-batean sortzen, prozesu luze baten ondorio dira, arotz-lanetan trebatutako gizarte batek egindakoaren fruitu hain zuzen ere. Egurrean egindako jarduera horren makina bat adibide aipa daitezke, hala nola etxe-dorreen kadahalsoak, baserrien eraikuntza, XVI. mendera arteko etxe hiritarrak, nekazal tresnak, kutxak, garaiak, altxariak ... Hitz batez esateko, egurrezko lanen historia luzea eta isila izan da, mendeetan zehar egindakoa.

Soraluzeko eliz atari hau – euskal arte herrikoia adibide benetan bikaina- Pedro de Aldazabal Madalzeta maisu arotzak eraiki zuen 1666. urtean, ate nagusiaren gainean dagoen txartel batean irakur daitekeenez. Ramiro Larrañaga adituak Soraluzeko kontzejuak 1665. urtean hartutako akordio hau ekartzen du gogora: “*«Otrosí decretaron de conformidad, que a Pedro de Aldaçabal, maestro carpintero vezino de esta Villa en quien se remató la manufatura de la portalada y cobertizo de la Yglesia parroquial de Ntra. S^a Sancta María la Real desta dha. villa, se le acuda con mil y seiscientos reales de la Limosna que los vezinos y moradores desta dha. villa ofrecieron para ayuda de azer la dha. Portalada y cobertizo*”. Soraluzeko aditu honek ondorioztatzen du arotz hau kajeroen gremioko kide izan zitekeela, kontuan hartuz gremio horretako langileak trebatuak izaten zirela intxaur-egurra lantzen, armen kaxak egiteko.

Materialari eta teknikari helduz gero, esan beharra dago eliz ataria gaztainondoz eginda dagoela goitik behera, eta arotzak zutabeak, habeak etab. tailatzeko erabili zuen tresna «azueta de peto» bezala ezagutzen dena izan zela. Modu horretan egindako lanek efektu optiko ikusgarria izaten dute, egurra horrela tailatzeak plastikotasun handia, sakontasun optikoa eta argi- ilun efektuak eragiten dituelako.



Eliz atariaren eraikuntza-egiturari so egin ezker, Barrokoak horren bereak zituen efektu eszenografikoak antzematen dira, atari hau antzoki klasiko bat bailitzan egituratuta baitago. Izan ere, Aldazabal arotz-maisuak espazio honek aurkezten duen maldaz -bost metrotako aldekoa- baliatzen da bi pisu jartzeko, antzoki klasikoetako *proscenium-a* gogoraraziz. Elizara igotzeko hiru eskailera sail jartzen ditu simetrikoki eratuak: erdiko eskailerek elizaren atera zuzen jotzen dute eta hori dela eta, multzoaren ardatz bihurtzen dira. Beste bi eskailera sail albo banatan jartzen dira, simetriaren arauari jarraituz. Estaldura egiteko, Aldazabalek erredutzat baserrien teilatuak hartu zituen, bai euskarriak egiteko, bai teilatua bera emateko. Horretarako egurrezko frontalez, habeez, zapatez eta jabaloiez (tornapuntas) baliatuko da.

Bere estiloari erreparatu ezker, egurrezko lan honek bi tradizio elkarlotzen ditu: alde batetik tradizio herrikoari dagokiona eta bestetik barrokoari dagokiona. Artelan honen balio artistikoa beraz, dekorazioan datza, egurrean egindako tailatze zehatzean hain zuzen ere. Ikusi besterik ez dago nola multzoaren zutikoak nahiz habeak, “horror vacui” (hutsari izua) tankerako trazei jarraituz, guztiz apainduak azaltzen diren, behin eta berriro errepikatuz loreak eta motibo geometrikoak apaingailu gisa. Landare-forma horiek (hostoak, loreak, fruituak) oso itxura mamitsua daukate, horrela areagotuta gelditzen delarik bai argi-iluntasuna, bai sakontasun-sentsazioa. Horrez gain, habeei eusteko erabiltzen diren kiribildurak forma lerronakurrak eta uhintsuak daukate. Forma horiek ederki asko erakusten dizkigute estilo barrokoaren dinamismoa eta mugimendu-sentsazioa.

5.3.-Kanpandorrea


Barroko garaia oso aproposa izan zen kanpandorreak eraikitzeke. Ikusi besterik ez dago nola XVII. eta XVIII. mendeetan zehar hainbat hiribilduk erantsi zioten parrokia elizari hain garrantzitsua den osagai arkitektoniko hau. Horrela kanpandorreak herrien ikur bihurtu ziren, inguruan zeuden beste herriekiko elementu bereizgarri eta seinalagarri. Era berean, hiribilduaren barruan ere, kanpandorrea elizaren kokapenaren erreferente bihurtu zen, bere irudia herriaren fisionomiarekin behin betiko bat eginda gelditu zelarik. Ezin dugu gainera ahantzi perspektiba ematearren, Barroko garaian elizaren inguruan ireki ziren espazio zabalak, esate baterako plazak edo zabalde irekiak. Hitz batez esateko, Barrokoaz geroztik, ezin da irudikatu gure hiribildu bat bere kanpandorrek gabe. Hala, beraien tankera dotoreari esker, elizen kanpoaldeak edertuta eta goratuta gelditu ziren.

Soraluzeko kanpandorrea egiteko jatorriz elgetarra zen Juan de Aranzeta maisu harginak lehenengo lanei 1686ko uztailean eman zien hasiera.

Material gisa herriaren inguruan horren ugaria den ofitazko harria erabili zen, harlandu modura moldatua, bertako arkitektura historikoan nagusi den kolore grisaxka berbera izanik baita kanpandorreak ere.

Kanpandorrea elizaren hego mendebaldean kokatzen da, Epistolaren aldean, eta ez du bat egiten lehenagotik eraikita zegoen elizaren gorputz nagusiarekin, exentua gelditzen delarik. Bestalde seinalagarria da Barrokoak horrenbeste zaindu zuen perspektibaz ikusteko jarrita dagoela, herriko edozein bazterretik, nahiz gertu dagoen zabalditik bere osotasunean preziatu baitaiteke.

Altxaerari erreparatu ezker, kanpandorrearen lehenengo gorputzak -dorreak hiru laurdenak hartzen dituen- oina karratua du. Erlaitza irten batek markatzen du lehen eta bigarren gorputzen arteko bereizketa. Alde honetan ornamentazio-urritasunak eta apaindura-ezak -baogunetxo batzuk besterik ez- Escorialeko eraginpeko arkitektura herreratarraren zorrotasuna eta geometrizazioa azpimarratzen dute.



Jarraian, bigarren gorputzak –kanpaiak dauzkanak- oin oktagonala du eta askoz arinagoa da behekoa baino (esan daiteke gorputz oktagonaren erabilerak arindu egiten duela dorreak irudia, lehen gorputzaren astuntasuna leunduz). Ematen du Barroko garaian horrenbeste zabaldu ziren baldakinoetan inspiratuta dagoela. Bere deskribapenari helduz gero, ikusten da kanpai-gorputz horrek oinarri bezala idulki edo basamentu moduko bat daukala, pilastra erantsiekin eta beste erlaitz irten batekin nabarmenduta. Erlaitz horrek bigarren gorputzaren oktagonoko forma azpimarratzen du. Basamentuaren gainean lau haizetara -hegoaldera, iparraldera, mendebaldera eta ekialdera- zabaltzen diren lau baogune daude, erdi puntuko forma dutenak. Baogune horiek angeluetan pilastra toskanarrak dauzkate eta goialdean taulamendua bere arkitrabe, friso eta erlaitz irtenarekin. Horrela, pilastren bertikaltasunak eta taulamenduaren horizontaltasunak orden geometriko zehatza eragiten dute. Pilastren gainean, kantoiak markatuz, bola herreratarrak nagusitzen dira.

Taulamenduaren gainean esferaerdi-formako kupula dator, material arinago batez eginda. Modu horretan gainera, Barrokoak horren gustuko zuen nolabaiteko bikromia sartzten da kanpandorrean. Hemen ere lau haizetara lau erloju biribil ikusten dira, bakoitza tondo zirkular batean sartuta, eraikin honek duen taxutze geometrikoa azpimarratuz. Erremate gisa, beste bola herreratar bat antzematen da. Ondorioz esan daiteke, inspirazio herreratarra duten forma geometriko soil eta zorrotzetan oinarrituta dagoela eraikin hau.

Azkenik esan bi estilo ezberdinetakoak izan arren, alegia, kanpandorrea barrokoa eta elizaren gorputz nagusia euskal gotikoaren araberkoa, egokitzapen arkitektonikoa oso modu aproposan eta egokian egin zela, multzo guztiari – bai elizari, nahiz kanpandorreari- soiltasuna, trinkotasuna, apaindura-urritasuna eta monumentaltasuna darizkiolako.

5.4.- Koruari eusten dion arkuteria

Antonio de Angiozar maisu harginak XVIII. mende hasieran (1715), koruari eusten dion arkuteria barrokoa eraikitzeari ekin zion. Arku

eskartzanoa hobetsi zuen bertan jartzeko, hau da beheratua, erdi puntuko arku batek ezin izango lukeelako nabe nagusiaren zabalera osoa bete.

Arkuteria ez dago Soraluzen ohikoa den ofita-harriz eginda; hargin-maisuak elizaren eranskin hau egiteko, harearri horixka bat jartzea nahiago izan zuen. Horrela, hemen ere, arkitektura barrokoan horrenbeste erabili izan zen kontraste kromatikoa bilatuko da, kolore desberdinetako harriak jarritz.

Apaingarrien oparotasuna –hau ere oso ezaugarri barrokoa- nabarmena da, goi-dekorazio lerromakurra behin eta berriro errepikatuz lortua. Arkuaren ertzetan landare bihurri eta mamitsu batek kurbak eta kontrakurbak deskribatuz, apaingailu-zerrenda bat irudikatzen du. Halaber, enjuta bakoitzean landare itxurako apaingailu apertatsu bat dago, ertz guztia betetzen duena.

6.-Erretaula nagusia

Soraluzeko Andre Maria Jasokundearen parrokia-elizaren erretaula nagusia Barrokoaren eta Neoklasizismoaren arteko trantsizioko estiloaren trazan arabera eginda dago XVIII. mendearen bigarren erdialdean. Ventura Rodríguez arkitekto madrildarrak (1717-1785) erretaula diseinatu zuen eta segidan Miguel Antonio de Jaúregui arkitekto bergararrak proiektu hori aurrera eraman zuen. Berehala ikusiko dugun bezala, egitura arkitektonikoan eszenografia barrokoak eta estetika formal neoklasikoak bat egiten dute; imajinetan, berriz, estilo barrokoaren ezaugarriak nagusitzen dira. Hor datza bi estetika horien arteko nahasmendua eta trantsizio-zentzua, Soraluzeko elizaren erretaulan horren ederki ikusten dena.

Neoklasizismo hitzak klasizismo berria esan nahi du. Jakina da ertilari neoklasikoek Antzinateko Greziako nahiz Erromako forma klasikoetara jo zutela eredu artistiko bila. Horren zergatia Ilustrazioak eragin zuen ikuspegiaren aldaketan datza, pentsalari ilustratuek uste baitzuten Erdi Aroko artea edota Barroko-garaikoa balio erlijiosoaren edota politikoen esanetara egon zirela, eta beraz, ez zirela egokienak gizarte aske batentzat. Horrela, arkitektura neoklasikoa, arrazionaltasunaren eta formen arteko orekaren bilaketa hartan, estilo barrokoaren balioetatik urrunduz joan zen. Hartara, Barrokoari zegozkion balio estetikoaren aurrean, estetika neoklasikoak beste honako balio hauek goretsi zituen: lerro zuzena, kurbaren ordez; soiltasuna, konplexutasunaren ordez; arrazoia, emozioaren ordez. Horregatik guztiagatik, obra neoklasikoei ordena, harmonia, proportzionaltasuna eta hoztasuna darizkie.

Iruzingai dugun erretaula honen materialari erreparatu ezker, esan beharra dago harlangaitzez -adreibila eta karezko nahiz igeltsuzko morteroa- eginda dagoela. Halere, harlangaitza estaltzarren eta harri dotorez eginda dagoen itxura emateko, harlangaitz horri iztuku polikromatu eta urreztatu bat gainjarri zaio, pintura erabiliz jaspeak eta marmolak imitatzen. Horrela, harrizko egiturak direla ematen du, ikusten den bezala predelan eta zutabeen fusteetan.

Erretaularen egitura, ohikoa den bezala, gorputz horizontaletan eta kale bertikaletan itxuratzen da, baina Ventura Rodríguezek erretaula hau arkitektura klasikoari dagokion estetikaren arabera taxutu zuen, tradizio biak batuz. Horrela, lehenengo gorputza bat dator tenplu klasiko baten *podium*-arekin; gorputz nagusia den bigarrenak, berriz, tenplu klasiko baten itxura hartzen du, bere *pronaos*-arekin - aurreko ganbara- eta bere *naos*-arekin - jainkoaren irudia egoten zen lekua-; azkenik, hirugarren gorputzean frontoi klasiko bat jartzen da, erremate gisa. Alboko kaleak eta

goiko erdi puntuko arkua gangari eta tenpluaren burualdeko itxiturari egokitzen dira, gelditzen den tarteko espazioa betez.

Lehenengo gorputza -erretaula bateko predela edo banku bati legokiokeena- tenplu klasikoak eraikitzeko oinarri gisa jartzen zuten *podium* baten antzera moldatzen da. Marmolezkoak direla ematen duten plaka batzuek estaltzen da, nahiz eta iztuku polikromatuz eginda egon. Ventura Rodríguezek erretaula osoari batasun bat eman nahi izan zion eta horretarako lehenengo gorputz honetan idulki handi batzuk jarri zituen, gainean dauden zutabe erraldoien oinarri direnak. Modu horretara, agerian gelditzen da elementu arkitektoniko guztiak direla erretaulan itxuratuta dagoen tenplu klasiko baten osagaiak.



Bigarren gorputza gorputz nagusia da eta hiru kale ditu, hots, erdiko kalea eta alboetan kale bana, simetriaren arabera jarriak. Erretaula guztiaren erdigune den erdiko kalea tenplu klasiko erromatar baten modura antolatzen da. Horrela, *Pronaos* klasiko baten antza duen alde honek hiruna zutabe erraldoi konposatu dauzka albo banatan, alegia, bi aurrean eta beste bat atzean. Horrek erretaulari sakontasuna ematen dio, bi zutabe-ilara dagoen sentsazioa ernarazten baitu, eta ondorioz, erretaularen berezko bidimentsionalitatea gutxituta gelditzen da. Bestalde, Soroluzeko erretaula honek ederki asko erakusten ditu orden konposatu erromatarraren ezaugarriak: harroina atikarra (harroina atikarrak bi bozel -elementu ganbilak- eta eskozia bat -elementu ahurra- ditu), fuste ildoduna (honek kamusturik ageri ditu 24 ertz) eta azkenik, ezaugarri nagusi moduan, ginbelean edo kapitolean kiribildura joniarrak eta akantozko hosto korintoarrak ditu. Zutabe konposatu horien gainean taulamendu handi bat dago. Taulamenduaren arkitrabea hiru zirrindez osatzen da; ondoren, etenik ez duen frisoa landare-erliebez dekoraturik ageri da eta azkenik, oso irtena den erlaitza hortzaxkekin. Taulamendu hau erdialdean atzerantz doa, hemen ere Barrokoak horren bereak zituen sartu-irtenak, bolumenen jokoan bidezko efektuak eta argi-efektuak ikus daitezkeelarik. Oso klasikoa ez den baliabide hau erabiltzeak, Ventura Rodríguezek heziketa barrokoa adieraziko luke.

Sarrera edo *pronaos* horren atzean tenplu klasiko baten *naos*-a gogorarazten duen espazioa kokatzen da. Arkitektoa absidearen sakontasunaz baliatu zen espazio hori horma-hobi ahur gisa moldatzeko eta labe-ganga batez estaltzeko. Horrela itxuratutako espazio horretan, Ama Birjinaren irudia jarriko zuten, antzinako tenplu klasikoetan jainkoak jartzen ziren bezalaxe. Ondorioz lehenagotik zegoen abside gotikoa guztiz eraldatuta gelditu zen. Neoklasizismo garaian egin ziren aldaketa horiek guztiak nabarmenago antzematen dira absidearen kanpo aldetik begiratu ezker: alde batetik labe-ganga eta bestetik hiru leiho, pilastra toskanarren artean, nondik argitasuna sartzen den Ama Birjina dagoen horma-hobiraino, *transparente* barroko bat bailitzan.

Alboko bi kaleak kolore grisaxka batez margotuta daude, harri-kolorea imitatu nahian. Ezbairik gabe, arkitektoak erdiko kaleko egitura arkitektonikoak nabarmendu nahi izan zituen modu berezi batez, eta horretarako baliatu zen bai koloreaz eta baita ere erliebeaz. Hartara, kontrastea erdiko kalearen eta albokoen artean begi bistan dago: erdikoa kolore biziz eta altu erliebez dagoen bitartean, alboko kaleak gris

kolore xume batez margotuta daude eta baxu erliebez landuta. Hauetan, laukizuzen luzanga batzuetan sartuta, bi eszena irudikatuta ageri dira: bata, San José umearekin adierazten duena Ebanjelio aldean, eta bestea Artzai Ona Epistola aldean. Laukizuzen horiek, arkutik gorako aldean landare-apaingailuz dotoretuta daude, eta gorago oraindik, bi girlanda antzematen dira, antzinako Erroma klasikoa gogora ekartzen dutenak.

Hirugarren gorputzean frontoi bat antzematen da bere tinpanoarekin, ohikoa izaten zen bezala tenplu klasikoak errematatzeke. Hemen ere, Ventura Rodríguezen formazio barrokoa agerian gelditzen da, frontoia kurbatua baita eta ez hiruki formakoa. Frontoi hori sostengatzeko bi pilastra toskanar erabiltzen dira bere taulamendutxoarekin. Tinpanoaren barruan Trinitatea ageri da irudikatuta, talde itxi bat osatuz: Aita eta Semea nahaspilatutako hodei multzo baten gainean eta Espiritu Saindua uso bat bezala- jakina denez haren adierazpen sinbolikoa- jaisten ari dela, izpi urreztatuen artean. Albo bietan goiaingeru bana belaunikatuta azaltzen dira, Trinitatea gurtzen.

Azkenik, erretaula osoa koroatzeko eta elizaren burualdeko itxiturara egokitzeko, Ventura Rodríguez arkitektoak erdi puntuko arku handi bat jarri zuen, berriz ere arkitektura klasikorako zaletasuna erakutsiz (behin eta berriro estetika barrokoaren eta neoklasikoaren arteko nahasketa). Kolore grisaxka neutro batez margoturiko arku handi horretan, Trinitateari begira dauden aingerutxo-buruak eta lore handiak tartekatuta agertzen dira hainbat tondo zirkular barnetan. Hori dela eta, nabarmentzekoa da hemen ere estetika neoklasikoak zuen gustua traza geometriko zehatzak erabiltzeko. Zeruaren irudikapen sinbolokoa izango litzateke, nolabaiteko gorte zerutarra adieraziko lukeena.

Egin dugun erretaularen egitura arkitektonikoaren deskribapen horrek nabarmen uzten du estetika neoklasikoa dela nagusi Ventura Rodríguezek diseinatutako erretaula honetan. Honako ezaugarri hauek ematen digute arkitektura neoklasikoaren berri: Greziako eta Erromako tenpluen arabera itxuratutako erretaula izatea; ortogonaltasuna —lerro bertikalei jarraituz antolatzen dira erretaularen elementu sostengatzaileak (zutabe erraldoiak, hormak eta goi aldeko pilastrak), eta lerro horizontalei jarraituz, berriz, elementu sostengatuak (predela eta taulamendua)—; taxuketa geometriko zehatz baten erabilera, esate baterako tondoak; balore arkitektoniko hauen nagusitasuna -lerro zuzena, soiltasuna, urritasuna eta neurritasuna-; Barrokoari zegozkion joritasunaren, dekorazio oparoaren eta gehiegikeriaren bazterketa —bakarrik apaingailu klasikoak agertzen dira, hortzaxkak, edota mentsulak bezalakoak-.

Erretaulak Andre Maria Birjinaren zeruratzea du gai nagusi. Irudi horren ezaugarriak arretaz aztertu ezker, berehala ohartuko gara Ama Birjinaren irudiak estilo barrokoak horren bereak zituen ezaugarriak erakusten dizkigula. Hona hemen:

-Polikromia: lan hau egiteko ertilariak egurra erabili zuen, baina kolorearekiko erakutsi zuen gustua dela eta, gauza desberdinen kalitatea adierazteko gauza izan zen (idulkiak, zeru urdinxka, brontze itxurako izpiak, hodei zurixkak, kerubinen haragi-koloreko gorputzak, Ama Birjinaren jantziak...). Ezbairik gabe esan genezake beraz, ertilariak gogotsu landu zituela koloreak eta argi-ilunen efektuak, kalitateak eta ehundurak adierazteko.

-Eszenografiarako zentzua. Teatralitate efektua lortzearren, Ventura Rodríguezek honako elementu hauetaz baliatu zen: zerurantz doan Ama Birjinaren eskultura

urdirin hodeitsuz margotuta dagoen horma-hobi batean jartzea; ikusten ez den goiko aldeko leihotik argitasuna sartzea; irudia honako elementu eszenografiko hauen artean kokatzea: urre koloreko izpiak, Ama Birjina mugimendu bortitzez gorantz bultzaka ari diren kerubinak eta nahaspilatutako hodeiak; Ama Birjina zeruratzen edota goratzen ari den sentsazioa areagotzeko behetik perspektibaz ikusteko bi egurrezko idulki ipintzea- behekoa mahai karratu moduko bat bere pilastrekin, eta bestea, ertz borobilagoak dituen-.

-Ama Birjinaren irudia Barrokoan hain erabilia izan zen eredu ikonografikoari jarraitzen dio. Horrela, aurpegiaren adierazkortasunak, gorpuzkeraren mugimenduak edota tolesturen argi-ilunen jokoek oso ondo erakusten dizkigute estilo horren ezaugarriak. Ertilariak Ama Birjina zutik ezarri zuen, besoak zabalik, begirada zerura zuela eta hodeiak eta kerubinak oinean zituela. Jaungoikoari begira dago, hunkiberatasunez betea, erregutzen ari dela bekatarien alde, bitartekari jardueran. Espresio umila eta sinesmen handia darizkio, fededunak hunkitzeko guztiz aproposa. Aurpegiaren sentimendu adierazkor horrekin batera, gorpuzkeraren keinuketak ere bat egiten du irudiaren jarrera teatralarekin. Kerubinak Ama Birjina zerurantz ari dira jasotzen eta sentsazio hori azaltzeko, gorputzak bizitasun handiko mugimendua deskribatzen du, besoak –diagonalki jarriak erregutzen ari dela seinaltatzeko- kanporantz proiektatzen baitira mugimendu zentrifugo batez. Zangoak, berriz, *contrappostoan* daude, gorputza mugimenduan dagoela adierazteko, zango bat aurrera eta bestea atzera jarritz. Horrek guztiak dinamismoa ematen dio irudiari, jarrera klasiko gelditik eta egonkorretik urrunduz. Halaber, eta ertilariak anatomia lantzearen, oihal bustiaren teknika erabili zuen, jantzien azpiko anatomiak antzeman daitezkeelarik -gehien bat izterrak eta belaunak-. Ama Birjina Zeruko Erreginaren gisara hartu da, eta hori dela eta, pertsonaia dotoreziaz apaindua izan da. Apaingarria da zentzu honetan, nola izan diren landuak urrezko hari finez mantu urdinaren ertzak eta soineko arrosaren mahuka-ertzak. Begi bistan dago beraz, irudi horrek erakusten dituen ezaugarri barrokoak peto-petoak direla.

7.-Soraluzeko eliza gaur egun

Laburbilduz esan genezake Soraluzeko Andre Maria Jasokundearen parroki-elizak Moderno Aroan zehar jorratu ziren hainbat estilo barnebiltzen duela: gotiko gardun berantiarra, euskal gotikoa edo kolumnarioa, barrokoa eta neoklasikoa. Zenbat mendetako hainbat estilotako atalez osatuta egon arren, emaitza koherentea izan dela esan daiteke eta ondorioz gure garaietaraino heldu zaigun elizak batasun estetiko taxuzko eta eder bat lortu duela.

Ezin da bukatu deskribapen hau aipatu gabe egin berri den elizaren eta erretaularen zaharberritzea. Eliza berriztatzeaz arduratu izan zen teknikari taldeak erabat asmatu zuen lan horri modu horretan ekitekoan, ikusi zen bezala 2007ko abenduaren 15ean egin zen inaugurazioan, bertan agerian gelditu baitzen egindako lana benetan bikaina izan zela. Egindako lanen artean, hauek dira gehien nabarmendu daitezkeenak: elizaren egiturazko elementu guztiak agerian uztea hormak zuriz utziz, argitasun aproposa jartzea, sarrerei tankera moderno egokia ematea eta koruari eusten dion arkuteriaren kolore horixka berdinez margotzea, kolore desberdinetako egurrak erabiltzea, erretaularen koloreak bere jatorrizko itxurara ekartzea. Lorpen horiek

guztiak goratu eta edertu egin dute izatez dotorea zen espazio arkitektoniko hau, bere baliabide guztiak aintzat hartuz.

Epilogo gisa, apelazio emozional bat eginez, gogora ekarri nahiko nuke zenbat eta zenbat mendetako hainbat eta hainbat plazentziatar, haiek gu bezala elizaren irudia bizikide izan zutelako jaiotzatik heriotzaraino. Guretariko bakoitza kate luze baten kate-begi bat besterik ez da, eta historia luze horretan guztiok erreferente/ikono berbera izan dugu: Herriko Eliza. Bejondeiola.

Zaindu dezagun gure garaietaraino heldu zaigun herriko ondarea, hurrengo belaunaldiek ere berdinez gozatzeko aukera izan dezaten.

Esker mila Edu Oregiri iradokizunengatik eta zuzenketengatik.